**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 24 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

Donostiako Udalbatzak, bi mila eta hamaseiko azaroaren hogeita lauko ohiko osoko bilkuran, ondoko mozio arrunta onartu zuen, Altzako kiroldegian hautemandako amianto kutsaduraz Irabazi Donostia taldeak aurkeztua. Erantsita ditu onarturiko lau zuzenketa adostuak (hiru, aldatzekoak, eta bestea, azalpen zatiari eranstekoa), EAJ / PNV, PSE-EE, EH Bildu eta Irabazi Donostia taldeek eginak. Behin betiko onarturiko testua honako hau da:

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veinticuatro de noviembre de dos mil dieciséis, aprobó la siguiente Moción Ordinaria presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre la contaminación por amianto detectada en la zona del Polideportivo de Altza, que incorpora cuatro enmiendas transaccionadas aprobadas, tres de modificación y una de adición de la parte expositiva, presentadas por los Grupos EAJ/PNV, PSE-EE, EH BILDU e IRABAZI DONOSTIA, siendo el texto definitivamente

aprobado el siguiente:

*“Duela aste batzuk, udal gobernuak jakinarazi zigun amianto arrastoak aurkitu dituztela Altzako kiroldegi berriko kanpoko igerilekua eta aparkalekua egitea aurreikusten zen inguruan, hots, 1963tik 1981era Fibrocementos Vascos SA enpresa egon zen eremuan.*

*Aurkikuntzaren berri eman ziguten bileran jakinarazi ziguten, halaber, airea aztertu behar zutela haren egoera ezagutzeko; emaitza negatiboa izan da, antza. Nolanahi ere, eta alarma soziala eragiteko inongo asmorik gabe, iruditzen zaigu inguruan hainbeste denboraz amiantoa egoteak zer ondorio dituen jakiteko beharrezkoak diren jarduketak bideratu behar dituztela gaian eskumena duten erakundeek.*

*Ez dugu ahantzi behar amiantoak pleurako mesoteliomak eta birikako kartzinomak eragin ditzakeela harekin kontaktuan egon eta urte asko geroago. Berez, zenbait ikerketen arabera, lanari egotz dakizkiokeen bi minbizitatik bat material horren eraginpean egon izanaren ondorio da Europan. Estatuan, 1975 eta 2010 bitarte, 6.037 lagun hil ziren Espainian pleurako minbiziaren ondorioz; horietatik, % 66 gizonezkoak ziren, eta % 34, emakumezkoak, eta kalkulatzen da hildakoak eragiten jarraituko duela 2040 arte.*

*Amianto kutsaduraren ondorio larriei buruzko ezagutza horiek aintzat hartuta, eta Altzan aurkitutako kutsaduraren ebidentziaren aurrean, uste dugu Eusko Jaurlaritzak neurriak hartu behar dituela jakiteko zein den pleurako mesoteliomen eta birikako kartzinomen ondorioz hildakoen intzidentzia Altza-Herrera inguruan, zein aldameneko beste toki batzuetan. Era*

*“Hace unas semanas el Gobierno municipal nos informaba de que se había detectado contaminación por amianto en la zona en la que estaban proyectadas la piscina descubierta y el parking del nuevo polideportivo del barrio de Altza, debido a que ese espacio estuvo ocupado por la empresa Fibrocementos Vascos SA desde 1963 a 1981.*

*En la reunión en la que se nos informó de la contaminación encontrada, también se comunicó que se iban a hacer estudios del aire para conocer su estado, que al parecer han dado resultados negativos. No obstante, y sin pretender caer en la alarma social, consideramos que las instituciones competentes en la materia deben llevar a cabo las actuaciones necesarias para conocer las consecuencias de la existencia de amianto durante tanto tiempo en la zona.*

*No debemos olvidar que el amianto puede provocar mesoteliomas pleurales y carcinomas de pulmón muchos años después de haber estado en contacto con el mismo. De hecho, según diversos estudios se calcula que uno de cada dos cánceres atribuibles al trabajo en Europa se debe a la exposición a este material. En el Estado entre 1975 y 2010 fallecieron en España 6.037 personas por cáncer pleural, de los que el 66% eran hombres y el 34% mujeres, y se calcula que seguirán produciéndose muertes hasta 2040.*

*Con todo este conocimiento sobre los posibles efectos graves de contaminación por amianto, y ante la evidencia de la contaminación por el mismo en Altza, creemos que el Gobierno vasco debe tomar medidas para conocer si hay una especial incidencia de muertes por mesoteliomas pleurales y carcinomas de pulmón, o por otras relacionadas con el*

*berean, martxan jarri zenetik kiroldegian lan egin dutenek ondoriorik jasan duten jakiteko betebeharra du Udalak, eta gaitza adierazi gabe urteak igaro daitezkeenez, aldian-aldian mediku azterketak egitekoa pertsona horiei guztiei.*

*amianto, en la zona de Altza-Herrera, así como en otras colidantes. De la misma manera, el Ayuntamiento tiene la obligación de saber si todas las presonas que han trabajado en el polideportivo desde que éste se puso en funcionamiento se han visto afectadas, y dado que las enfermedades pueden tardar años en manifestarse, hacer reconocimientos médicos periódicos a las mismas.*

*Hori dela eta, hauxe da aurkezten dugun*

*Por todo ello presentamos la siguiente:*

*MOZIO ARRUNTA*

*MOCIÓN ORDINARIA*

*1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari Udalari helarazteko Donostiako Altza - Herrera auzoan pleurako mesoteliomek eta birikietako kartzinomek eragindako heriotzei buruzko datuak, bai eta amiantoari lotutako beste heriotzei buruzkoak ere, kontuan hartuta 1981az geroztik, Boskotarren eta Harriberriren artean, industria lurretan, Fibrocementos Vascos SL enpresa jarri zela (gerora, fibrozementu hodiak egiten zituen enpresa horrek Boost Fibrocemento Toschi-Ibérica hartuko zuen izen), edo, bestela, datu horiek jasotzeko ikerlana egiteko.*

*1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia insta al Gobierno vasco, dado que desde el año 1963 hasta el año 1981, entre Los Boscos y HarriBerri, se situó una empresa de producción de tuberías de fibrocemento en terrenos industriales (inicialmente denominada "Fibrocementos Vascos SL" y posteriormente "Boost Fibrocementos Teschi-Ibérica"), a remitir al Ayuntamiento los datos de incidencia de muertes por mesoteliomas pleurales y carcinomas de pulmón, o por otras relacionadas con el amianto, en el barrio de Altza de Donostia / San Sebastián, o en su defecto realice el estudio correspondiente que contenga esos datos*

*2. Donostiako Udalbatzak Osalani eta Lan Ikuskaritzari hertsatuki eskatzen die elkarlanean jarraitzeko Donostiako Udaleko Lan Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuarekin, kiroldegiaren instalazioen gaineko azterlanetatik eta, batez ere, galdaren gainekoetatik ondorioztatzen bada amiantoa badagoela, mantentze lanetan edo bestelako lanetan (frogen arabera kutsatuta egon ziren eremuetan eginikoak, esaterako) ari zirela amiantoaren eraginpean egon zirenak identifikatzeko; hala amiantoaren eraginpean egon diren langileen erregistroan sartuko dira eta, ondorioz, Osalanek ezarritako osasun*

*2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta a Osalan y a la Inspección de Trabajo a que sigan colaborando con el Servicio de Prevención de Riesgos Laborales del Ayuntamiento para que en el caso de que los estudios de las instalaciones del polideportivo, y en particular de las calderas, determinaran la presencia de amianto, se identifique a las personas que en la realización de las labores de mantenimiento o en otras labores, como las obras realizadas en los ámbitos en los que resulte determinada su contaminación, estuvieran expuestas al amianto, de modo que*

*protokoloa aplikatuko zaie.*

*sean incorporadas al registro de personas trabajadoras potencialmente expuestas a amianto y, consecuentemente, se les aplique el protocolo de salud establecido por Osalan.*

*3. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzako sail eskudunei eskatzen die elkarlanean jarraitzeko Udalarekin, helburu hauek lortzeko:*

*3. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián solicita a los departamentos competentes del Gobierno vasco que sigan colaborando con el Ayuntamiento para:*

*A) Zehatz-mehatz kutsaturiko aldeak zehaztu ondoren, amiantoaren arrastoak aurkitu diren kiroldegiaren ondoko lursailetan egindako ikerketatik ateratako datuak aztertu eta gero, erabaki behar da ea beharrezkoa den ikerketa osagarriak nahiz lagin intentsiboak egitea, kutsatutako aldeak edo eremuak zehatz mugatzeko.*

*A) Tras determinar con exactitud las superficies contaminadas, una vez analizados los datos de la investigación realizada en las parcelas en el entorno del polideportivo donde se ha detectado amianto, fijar la necesidad de realizar estudios adicionales o catas intensivas, de modo que se delimite con exactitud las áreas o las superficies contaminadas.*

*B) Jarduteko aukerei buruzko ikerlanak entregatu eta gero, erabaki beharko da zein diren neurririk seguruenak eta ingurumena ondoen babesten dituztenak, kutsatutako lurzoruetan aplikatzeko, eta ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dituzte.*

*B) Una vez entregados los estudios de alternativas de actuación, determinar las medidas necesarias más seguras y más respetuosas con el medio ambiente a adoptar en los suelos contaminados, dándolos a conocer a la mayor brevedad.*

*C) Zehaztea zer neurri hartu behar diren kiroldegi berria gauzatzeko lanak kontratatu baino lehen, lurzorua analizatzea edo lagin intentsiboak jasotzea barruan direla. Desmuntatze edo eraiste aldian materialen batek amiantoa izan dezakeelako susmorik izanez gero, indarreko legeek xedaturiko neurri eta protokoloak ezarriko dira.*

*C) Determinar las medidas a adoptar, previas a la contratación de las obras del nuevo polideportivo, incluyendo la realización de análisis de suelo o catas intensivas. En el caso de que en la fase de desmontaje o demolición se encontrara material sospechoso de contener amianto, se aplicarán las medidas y protocolos determinados por la legislación vigente.*

*4. Donostiako Udalak hertsatuki eskatzen die ondorengoei:*

*4. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta:*

*A) Eusko Legebiltzarrari, Estatuko Gorte Nagusietan berriro aurkeztu dezala 2016an Eusko Legebiltzarrak Konpentsazio Funtsaz onarturiko eskaera.*

*A) al Parlamento Vasco a que vuelva a elevar a las Cortes Generales del Estado la petición de la cámara vasca de 2016 sobre el Fondo de Compensación.*

*b) Estatuko Gorte Nagusiei, amiantoaren biktimen beharrak asetzeko konpentsaziozko diru funts bat eratu dezala.================================*

*B) a las Cortes Generales del Estado a que procedan a la creación de un fondo económico compensatorio para atender las necesidades de las víctimas del amianto.”. ====================================*

*4. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Pasaiako Portuko Agintaritzari Herrera eta Trintxerpe oinezkoentzat lotzerakoan ez dezatela pertsonen segurtasunerako puntu kritikorik sortu”. ====================================*

*4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa, al Gobierno Vasco y a la Autoridad Portuaria del Puerto de Pasaia, a que la conexión peatonal entre Herrera y Trintxerpe no suponga la creación de nuevos puntos críticos para la seguridad de las personas”. ====================================*

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hamaseiko azaroaren hogeita zortzian.

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación , visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a veintiocho de noviembre de dos mil dieciséis.

ALKATEAK O. E. /
V. º B. º DEL ALCALDE,
Eneko Goia Laso”.

---------------

**II.1.10. Mozio arrunta, EH BILDU taldeak aurkeztua, Herrerako birgaitze beharra dela-eta.**

**II.1.10. Moción ordinaria, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la necesidad de rehabilitar Herrera.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriagak, EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno,

oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Herrerako birgaitze beharrak direla-eta.

JUSTIFIKAZIOA

Herrerako garrantzia Pasaiako Badiari begira, zein Donostiari begira bere erreferentzi historikoetan galtzen da. Batetik, Pasaiako Portuarekin duen lotura zuzenarengatik eta, bestetik, Irun eta Donostiaren arteko loturaren gune garrantzizkoa izan delako betidanik, garai batean Badiako urak txalupan zeharkatzeko, eta ondoren, lurrak itsasoari espazioa kendu ahala, bide-gurutze estrategikoa bihurtu zelako. Ez da kasualitatea bertako bide-sarean eta metro gutxitan biltzea: N-I errepidearekin lotura, urte luzeetan hiriko sarrera-irteera nagusiak, RENFE/ADIF-eko tren geltokia eta Topoa/Eusko Trenbideak sarearen geltokia.

Donostiarentzat izan duen garrantzi estrategiko honek, aldiz, ez du zegokion tratamendua ordainetan jaso, eta oraindik ere eremu osoan txukundu eta bukatu gabeko zonalde, bide, azpiegitura eta beharrak daude. Planifikazio arazoak, diru-eskasiak edo koordinazio faltak, administrazio baten baino gehiagoren arduragabekerien ondorioz, urte luzeetako arazoak metatu dira, eta egun konpondu gabe jarraitzen dute. Horrek ez du esan noski, hobekuntzak egin ez direnik, administrazioek ardura batzuk hartu ez dituztenik baina, errealitatea da oraindik ere zonaldeari irteera globala ez zaiola eman eta 2016an Donostiako ekialdeko sarrera ez datorrela bat... ez garaiarekin, ez hiriarekin.

Ingurabidea eraikitzerakoan, N-I errepidearen trafikoa Donostiako erdialde eta

presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA sobre la necesidad de rehabilitar Herrera.

JUSTIFICACIÓN

La importancia de Herrera tanto para la Bahía de Pasajes como para San Sebastián se remonta a sus referencias históricas. Por un lado, por su relación directa con el Puerto de Pasajes, y por otro, porque siempre ha sido una zona importante de la conexión entre Irún y San Sebastián, en el pasado para atravesar en barca las aguas de la Bahía y más tarde, a medida que la tierra quitaba espacio al mar, por convertirse en un cruce estratégico. No es casualidad que en su red viaria reúna en pocos metros la conexión con la carretera N-I, las carreteras que durante muchos años han sido las principales salidas y entradas de la ciudad, la estación de RENFE/ADIF y la estación del Topo/Eusko Trenbideak.

Sin embargo, esa importancia estratégica que ha tenido el barrio para San Sebastián no ha recibido a cambio el trato merecido, y todavía hay en toda la zona espacios, caminos e infraestructuras sin acondicionar y sin terminar. Como consecuencia de la irresponsabilidad de más de una administración ha habido problemas de planificación, falta de dinero o falta de coordinación, por lo que los problemas se han ido acumulando durante años y siguen sin solucionarse. Eso no significa que no se hayan llevado a cabo algunas mejoras y que las administraciones no hayan adoptado ciertas responsabilidades, pero la realidad es que todavía no se le ha dado una solución global a la zona y que en el año 2016 la entrada este de San Sebastián no es acorde ni con la época ni con la ciudad.

Al construir la circunvalación para evitar el tráfico de la N-I en las zonas centro y oeste de

mendebaldetik kentzeko, beste afekzioen artean Jose Elosegi alkatearen hiribidearen bukaera aldera, 120 eta 125 zenbakien bitartean bi zulo handi sortu ziren, beti beste lehentasun batzuk direlako, estali gabe geratu direnak. Horren ondorioz, ingurunean dagoen zarata eta kutsadura areagotzeaz gain, beste arrisku eta eragozpenak sortzen dira. Ezaguna denez arazo honek bertako bizilagun zein elkarteen kexa ugari ekarri ditu, eta konpontzeak ekarriko lukeen hobekuntza nabarmena biziki txalotuko lukete.

la ciudad, entre otras afecciones, surgieron dos grandes agujeros entre los números 120 y 125 de la avenida del Alcalde Jose Elosegi y todavía no se han cubierto, puesto que siempre hay otras prioridades. Como consecuencia, además de incrementar el ruido y la contaminación del entorno, también se crean otra clase de peligros e inconvenientes. Es cosa sabida que dicho problema ha suscitado numerosas quejas entre los y las vecinas y las asociaciones del lugar, que agradecerían enormemente la mejora que conllevaría arreglar los agujeros mencionados.

Bestetik, Trintxerpe eta Herrera arteko lotura oinezkoentzat egoera tamalgarrian dago, behin behinekotasunean geratu baitzen Topoko geltokia berritu zenean, eta urteak pasa ahala ez zaio bukaera eman, bidea zein ingurune osoa lotsagarri daudela. Orain Trintxerpe eta Herrera lotzeko errepideen inguruko interbentzioa egiteko asmoak iragarri dira Eusko Jaurlaritzaren partetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere ardura izango duelarik. Interbentzio horrek, noski, arestian aipatu den arazoari irtenbidea eman diezaioke, interbentzio globala planteatuz gero.

Por otro lado, el paso para peatones entre Trintxerpe y Herrera está en un estado lamentable. Se acondicionó de forma provisional al renovar la estación del topo y, aunque ya hayan pasado algunos años, la obra de acondicionamiento no se ha terminado, por lo que tanto el camino como el entorno presentan una imagen vergonzosa. Ahora, el Gobierno Vasco ha anunciado su intención de llevar a cabo intervenciones en las carreteras que unen Trintxerpe y Herrera, y la Diputación Foral de Gipuzkoa también tendrá su parte de responsabilidad. Dicha intervención puede solucionar el problema mencionado, siempre que se plantee como una intervención global.

Azkenik eta guzti horrekin lotuta aipatu beharra dago Herrerako Frontoia. Izan ere Frontoia desagertu zen Topoaren estazio zaharra eraitsi zenean, alegia, estazio berria eraikitzeko interbentzio berean. Gipuzkoako Foru Aldundiak berak konpromisoa hartu zuen auzoaren aurrean eta, Udalaren aurrean, Frontoi berria eraikiko zela, interbentzio berriarekin batera. Aldiz bideak behin behinekotasunean geratu diren bezala, Herrerako frontoia desagertu bai, baina berria eraiki gabe geratu da.

Por último y en relación con todo lo expuesto, cabe mencionar el frontón de Herrera. Al derribar la antigua estación del topo, el frontón desapareció, en la misma intervención llevada a cabo para construir la nueva estación. La propia Diputación Foral de Gipuzkoa se comprometió ante el barrio y ante el Ayuntamiento a construir un nuevo frontón dentro de la nueva intervención. Pero del mismo modo que los caminos siguen sin acondicionarse, el frontón de Herrera sigue sin construirse.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak

Por todo lo expuesto, el grupo municipal EH

honakoa aurkezten du:

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak eskatzen die Eusko Jaurlaritzari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Pasaiako Portu Agintaritzari inplikatzeko eta koordinatzeko Herrerak beharrezkoa duen birgaitzean, eta horretarako bertako bizilagunen eta Donostiako Udalaren iritziak kontuan izan ditzaten.

2.- Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari leku aproposean Herrerako Frontoia berriz eraikitzeko konpromisoa bete dezan, eta horretarako lankidetza bidera dezala egitasmoan inplikatua(k) egon daite(z)keen erakunde(ar)ekin.

3.- Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta bereziki, Bide Azpiegituren Foru Departamentuari, Ingurubidearen sarrera-irteeren ondorioz, Elosegi alkatearen hiribidearen bukaera aldera, 120 eta 125 zenbakien bitartean dauden bi zuloak estaltzeko egitasmoari ekin diezaion, eta horretarako proiektua enkargatu eta dagokion aurrekontuak aurreikus ditzan.

Donostian, 2016ko azaroaren 4a

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko bozeramailea”.

BILDU presenta la siguiente:

MOCIÓN ORDINARIA

1.- El Pleno de Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Vasco, a la Diputación Foral de Gipuzkoa y a la Autoridad del Puerto de Pasajes que se impliquen y se coordinen en la rehabilitación de Herrera y que para ello tomen en cuenta las opiniones de los y las vecinas del barrio y del propio Ayuntamiento de San Sebastián.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita a la Diputación Foral de Gipuzkoa que cumpla su compromiso de reconstruir el frontón de Herrera en un lugar apropiado y que para ello posibilite la colaboración con la(s) entidad(es) que pueda(n) estar implicada(s) en el proyecto.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita a la Diputación Foral de Gipuzkoa y en especial al Departamento Foral de Infraestructuras Viarias que ponga en marcha el proyecto para cubrir los dos agujeros surgidos entre los números 120 y 125 de la avenida del Alcalde Jose Elosegi durante las obras de construcción de las salidas y entradas de la circunvalación. Asimismo, solicita que encargue el proyecto y prevea los presupuestos necesarios.

En San Sebastián, a 4 de noviembre de 2016

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
Portavoz del grupo municipal de EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Amaia Martin Garin andreak, Enrique Ramos Vispo jaunak, Martin Ibabe Eceiza jaunak eta Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, Dª. Amaia Martín Garín, D. Enrique Ramos Vispo, D. Martín Ibabe Eceiza y D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**IRABAZI DONOSTIA TALDEAK 10. GAIARI AURKEZTUTAKO 1. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA Nº 1 AL ASUNTO Nº 10 PRESENTADA POR EL GRUPO IRABAZI DONOSTIA:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**IRABAZI DONOSTIA TALDEAK 10. GAIARI AURKEZTUTAKO 2. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA Nº 2 AL ASUNTO Nº 10 PRESENTADA POR EL GRUPO IRABAZI DONOSTIA:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**EAJ-PNV TALDEAK ETA PSE-EE TALDEAK AURKEZTUTAKO ZUZENKETA TRANSAKZIONATUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA TRANSACCIONADA PRESENTADA POR LOS GRUPOS EAJ-PNV Y PSE-EE:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**ALDEKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**VOTOS A FAVOR: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**10. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO Nº 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

Donostiako Udalbatzak, bi mila eta hamaseiko azaroaren hogeita lauan egindako Ohiko Bilkuran, honako Mozio Arrunta onartu zuen, EH Bilduk aurkeztua, Herrera birgaitzeko beharra dela-eta. Onartutako bi zuzenketa erantsi zitzaizkion: bata, xedapen zatiari 4. puntu bat eranstekoa, Irabazi Donostia taldeak aurkeztua; eta, bestea, xedapen zatiko 1. eta 2. puntuak ordezkatzekoa, EAJ eta PSE-EE taldeek aurkeztua, eta, hala, behin betiko onartutako testua hauxe da.

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veinticuatro de noviembre de dos mil dieciséis, aprobó la siguiente Moción Ordinaria presentada por el Grupo EH BILDU sobre la necesidad de rehabilitar Herrera, que incorpora dos enmiendas aprobadas, una de adición de un 4º punto a la parte dispositiva, presentada por el Grupo Irabazi Donostia, y una de sustitución de los puntos nº1 y nº2 de la parte dispositiva, presentada por los Grupos EAJ/PNV y PSE-EE, siendo el texto definitivamente aprobado el siguiente:

*"Herrerako garrantzia Pasaiako Badiari begira, zein Donostiari begira bere erreferentzi historikoetan galtzen da. Batetik, Pasaiako Portuarekin duen lotura zuzenarengatik eta, bestetik, Irun eta Donostiaren arteko loturaren gune garrantzizkoa izan delako betidanik, garai batean Badiako urak txalupan zeharkatzeko, eta ondoren, lurrak itsasoari espazioa kendu ahala, bide-gurutze estrategikoa bihurtu zelako. Ez da kasualitatea bertako bide-sarean eta metro gutxitan biltzea: N-I errepidearekin lotura, urte luzeetan hiriko sarrera-irteera nagusiak, RENFE/ADIF-eko tren geltokia eta Topoa/Eusko Trenbideak sarearen geltokia.*

*"La importancia de Herrera tanto para la Bahía de Pasajes como para San Sebastián se remonta a sus referencias históricas. Por un lado, por su relación directa con el Puerto de Pasajes, y por otro, porque siempre ha sido una zona importante de la conexión entre Irún y San Sebastián, en el pasado para atravesar en barca las aguas de la Bahía y más tarde, a medida que la tierra quitaba espacio al mar, por convertirse en un cruce estratégico. No es casualidad que en su red viaria reúna en pocos metros la conexión con la carretera N-I, las carreteras que durante muchos años han sido las principales salidas y entradas de la ciudad, la estación de RENFE/ADIF y la estación del Topo/Eusko Trenbideak.*

*Donostiarentzat izan duen garrantzi estrategiko honek, aldiz, ez du zegokion tratamendua*

*Sin embargo, esa importancia estratégica que ha tenido el barrio para San Sebastián no ha*

*ordainetan jaso, eta oraindik ere eremu osoan txukundu eta bukatu gabeko zonalde, bide, azpiegitura eta beharrak daude. Planifikazio arazoak, diru-eskasiak edo koordinazio faltak, administrazio baten baino gehiagoren arduragabekerien ondorioz, urte luzeetako arazoak metatu dira, eta egun konpondu gabe jarraitzen dute. Horrek ez du esan noski, hobekuntzak egin ez direnik, administrazioek ardura batzuk hartu ez dituztenik baina, errealitatea da oraindik ere zonaldeari irteera globala ez zaiola eman eta 2016an Donostiako ekialdeko sarrera ez datorrela bat... ez garaiarekin, ez hiriarekin.*

*recibido a cambio el trato merecido, y todavía hay en toda la zona espacios, caminos e infraestructuras sin acondicionar y sin terminar. Como consecuencia de la irresponsabilidad de más de una administración ha habido problemas de planificación, falta de dinero o falta de coordinación, por lo que los problemas se han ido acumulando durante años y siguen sin solucionarse. Eso no significa que no se hayan llevado a cabo algunas mejoras y que las administraciones no hayan adoptado ciertas responsabilidades, pero la realidad es que todavía no se le ha dado una solución global a la zona y que en el año 2016 la entrada este de San Sebastián no es acorde ni con la época ni con la ciudad.*

*Ingurabidea eraikitzerakoan, N-I errepidearen trafikoa Donostiako erdialde eta mendebaldetik kentzeko, beste afekzioen artean Jose Elosegi alkatearen hiribidearen bukaera aldera, 120 eta 125 zenbakien bitartean bi zulo handi sortu ziren, beti beste lehentasun batzuk direlako, estali gabe geratu direnak. Horren ondorioz, ingurunean dagoen zarata eta kutsadura areagotzeaz gain, beste arrisku eta eragozpenak sortzen dira. Ezaguna denez arazo honek bertako bizilagun zein elkarteen kexa ugari ekarri ditu, eta konpontzeak ekarriko lukeen hobekuntza nabarmena biziki txalotuko lukete.*

*Al construir la circunvalación para evitar el tráfico de la N-I en las zonas centro y oeste de la ciudad, entre otras afecciones, surgieron dos grandes agujeros entre los números 120 y 125 de la avenida del Alcalde Jose Elosegi y todavía no se han cubierto, puesto que siempre hay otras prioridades. Como consecuencia, además de incrementar el ruido y la contaminación del entorno, también se crean otra clase de peligros e inconvenientes. Es cosa sabida que dicho problema ha suscitado numerosas quejas entre los y las vecinas y las asociaciones del lugar, que agradecerían enormemente la mejora que conllevaría arreglar los agujeros mencionados.*

*Bestetik, Trintxerpe eta Herrera arteko lotura oinezkoentzat egoera tamalgarrian dago, behin behinekotasunean geratu baitzen Topoko geltokia berritu zenean, eta urteak pasa ahala ez zaio bukaera eman, bidea zein ingurune osoa lotsagarri daudela. Orain Trintxerpe eta Herrera lotzeko errepideen inguruko interbentzioa egiteko asmoak iragarri dira Eusko Jaurlaritzaren partetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere ardura izango duelarik. Interbentzio horrek, noski, arestian aipatu den*

*Por otro lado, el paso para peatones entre Trintxerpe y Herrera está en un estado lamentable. Se acondicionó de forma provisional al renovar la estación del topo y, aunque ya hayan pasado algunos años, la obra de acondicionamiento no se ha terminado, por lo que tanto el camino como el entorno presentan una imagen vergonzosa. Ahora, el Gobierno Vasco ha anunciado su intención de llevar a cabo intervenciones en las carreteras que unen Trintxerpe y Herrera, y la Diputación*

*arazoari irtenbidea eman diezaioke, interbentzio globala planteatuz gero.*

*Foral de Gipuzkoa también tendrá su parte de responsabilidad. Dicha intervención puede solucionar el problema mencionado, siempre que se plantee como una intervención global.*

*Azkenik eta guzti horrekin lotuta aipatu beharra dago Herrerako Frontoia. Izan ere Frontoia desagertu zen Topoaren estazio zaharra eraitsi zenean, alegia, estazio berria eraikitzeko interbentzio berean. Gipuzkoako Foru Aldundiak berak konpromisoa hartu zuen auzoaren aurrean eta, Udalaren aurrean, Frontoi berria eraikiko zela, interbentzio berriarekin batera. Aldiz bideak behin behinekotasunean geratu diren bezala, Herrerako frontoia desagertu bai, baina berria eraiki gabe geratu da.*

*Por último y en relación con todo lo expuesto, cabe mencionar el frontón de Herrera. Al derribar la antigua estación del topo, el frontón desapareció, en la misma intervención llevada a cabo para construir la nueva estación. La propia Diputación Foral de Gipuzkoa se comprometió ante el barrio y ante el Ayuntamiento a construir un nuevo frontón dentro de la nueva intervención. Pero del mismo modo que los caminos siguen sin acondicionarse, el frontón de Herrera sigue sin construirse.*

*Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honakoa aurkezten du:*

*Por todo lo expuesto, el grupo municipal EH BILDU presenta la siguiente:*

*MOZIOA ARRUNTA*

*MOCIÓN ORDINARIA*

*1. Donostiako Udalbatzak eskatzen die erakunde inplikatuei, hau da, Eusko Jaurlaritzari, Portuko Agintaritzari, Foru Aldundiari eta dagokien udalei aurrerantzean ere jarrai dezatela bizilagunekin batera lanean Herrera biziberritzeko erakunde arteko lana sustatzeko.*

*1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita a las instituciones implicadas, Gobierno Vasco, Autoridad Portuaría, Diputación Foral y Ayuntamientos implicados que, en colaboración con los vecinos afectados, continúen impulsando el trabajo interinstitucional de regeneración de la Herrera.*

*2. Donostiako Udalbatzak eskumena duten erakundeei eskatzen die jarrai dezatela Herrera osoki biziberritzeko prozesuan sartzen alde horretan dauden beharrak, auzokoen eskaerak –hala nola kirol instalazioen gainekoa– aintzat hartuz.*

*2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita a las instituciones competentes continúen integrando en el proceso de regeneración global de la Herrera, las distintas necesidades de la zona atendiendo las demandas existentes en el barrio como son las de las instalaciones Deportivas de la misma.*

*3. Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta bereziki, Bide Azpiegituren Foru Departamentuari, Ingurubidearen sarrera-irteeren ondorioz, Elosegi alkatearen*

*3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita a la Diputación Foral de Gipuzkoa y en especial al Departamento Foral de Infraestructuras Viarias que ponga en marcha el proyecto para cubrir los dos agujeros surgidos*

*hiribidearen bukaera aldera, 120 eta 125 zenbakien bitartean dauden bi zuloak estaltzeko egitasmoari ekin diezaion, eta horretarako proiektua enkargatu eta dagokion aurrekontuak aurreikus ditzan.*

*entre los números 120 y 125 de la avenida del Alcalde Jose Elosegi durante las obras de construcción de las salidas y entradas de la circunvalación. Asimismo, solicita que encargue el proyecto y prevea los presupuestos necesarios.*

*4. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Pasaiako Portuko Agintaritzari Herrera eta Trintxerpe oinezkoentzat lotzerakoan ez dezatela pertsonen segurtasunerako puntu kritikorik sortu". ===================================*

*4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa, al Gobierno Vasco y a la Autoridad Portuaria del Puerto de Pasaia, a que la conexión peatonal entre Herrera y Trintxerpe no suponga la creación de nuevos puntos críticos para la seguridad de las personas". ===================================*

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hamaseiko azaroaren hogeita zortzian.

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación , visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a veintiocho de noviembre de dos mil dieciséis.

ALKATEAK O. E. /
V. º B. º DEL ALCALDE,
Eneko Goia Laso".

---------------

**II.2**

**KONTROL MOZIOAK**

**II.2**

**MOCIONES DE CONTROL**

**II.2.1. Kontrol mozioa, PP Taldeak aurkeztua, Nestor Basterretxearen "Bakearen usoa" eskulturari babes berezia**

**II.2.1. Moción de control presentada por el Grupo PP relativa a la especial protección a la escultura "Paloma de la Paz", de Nestor**

**ematea dela eta.**

“Talde Popularreko zinegotzi Jose Maria Murguiondo Casalek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordeak 2016ko azaroaren 14an izan zuen bileran Nestor Basterretxearen “Bakearen Usoa”z egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Udalbatzak, 2014ko abenduaren 18an izan zuen osoko bileran, Talde Sozialistak aurkeztutako proposamen bat onartu zuen: Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziari beste fitxa bat gehiago erantsi eta babes berezia ematea Nestor Basterretxearen “Bakearen usoa” eskulturari.

Harrezkero, ordea, ez da espedientea berriz aktibatu eta eskulturari esandako kalifikazio hura emateko egin beharrekorik egin. Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordeak hil honetan izan duen bileran, interpelazio bat egin zuen gure taldeak, arte-lan hori Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Berezian sartzearen gaineko xehetasunen berri izateko.

Bakearen Usoari babes berezi bat ematearen alde azaldu zen Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi eskuordeduna bilera hartan, eta Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Berezia berriz begiratzen ari direla, han sartu behar dela lan hori eta eskultura bakarrik edo multzo osoa sartu zehaztea falta dela esan zuen.

Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Berezia berriz begiratzekoan, hirigintza aldetik

**Basterretxea.**

“D. José María Murguiondo Casal, concejal del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio, celebrada el día 14 de Noviembre de 2016, relativa a la especial protección a la escultura “Paloma de la Paz”, de Nestor Basterretxea.

JUSTIFICACION

El Pleno municipal del 18 de diciembre de 2014 aprobó una proposición presentada por el Grupo Socialista para incorporar una nueva ficha al PEPPUC (Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico Construido) y dotar de especial protección a la escultura de la “Paloma de la Paz” de Nestor Basterretxea.

Tras la aprobación del pasado mandato, no se han producido, a día de hoy, los efectos necesarios para reactivar el expediente y proceder a la calificación de la obra. En la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio de este mes, nuestro Grupo presentó una interpelación para conocer detalles sobre la inclusión de este elemento en el PEPPUC.

El Concejal Delegado de Urbanismo Sostenible defendió, en aquella sesión, la necesidad de dotar de una especial protección a la Paloma de la Paz, y recordó que estamos en proceso de revisión del PEPPUC, dentro del cual debiera estar incluida dicha obra, a falta de definir la puesta en valor sólo de la escultura o del conjunto.

Durante el proceso de revisión del PEPPUC se van a estudiar fichas de numerosos elementos

babesteko moduko elementu askoren fitxak begiratuko dituzte. Baina, ez dugu ahaztu behar oraindik ere eginkizun dagoela —Udalbatzaren onarpena goiti-beheiti— obra hori babestearena. Hori dela eta, aginduari kasu egin dakion, hauxe da Talde Popularrak dakarren MOZIOA:

susceptibles de protección urbanística. Sin embargo, no debemos olvidar que queda pendiente, pese a la aprobación del Pleno, la protección de esta obra. Para que esta circunstancia sea atendida, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu taldeari eskatzen die “Bakearen usoa” eskultura ere sartzeko Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziak babestutako elementuen katalogoan plan hori berriz begiratzekoan.

El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, en el procedimiento de revisión del PEPPUC (Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico Construido), incluya la escultura “Paloma de la Paz” en el catálogo de elementos protegidos por dicho plan.

Donostian, 2016ko azaroaren 18an

En Donostia/ San Sebastián, a 18 de Noviembre de 2016

Jose Maria Murguiondo Casal,
Talde Popularreko zinegotzia”.

José María Murguiondo Casal
Concejal del Grupo Popular”.

Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.2. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak eta IRABAZI DONOSTIA Taldeak batera aurkeztua, Donostiako Udalaren eraikinak eta Udalaz gaindiko beste erakunde batzuenak garbitzeko zerbitzuari dagokion**

**II.2.2. Moción de control conjunta presentada por los Grupos EH BILDU e IRABAZI DONOSTIA sobre la contratación del “Servicio de limpieza de edificios municipales de Donostia y de otras**

**kontratua dela-eta (1. sorta).**

**KENDUA.**

**entidades supramunicipales (lote 1)”.**

**RETIRADA.**

Amaia Martin Garin andreak eta Naiara Sampedro Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Intervienen en este punto las señoras Dª. Amaia Martín Garín y Dª. Naiara Sampedro Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

---------------

**II.2.3. Kontrol mozioa, PP Taldeak aurkeztua, “zezenketetara udal baliabideak edota instalazioak” bideratzeari buruzko kontsulta egiteko aurrekontu partidak direla eta.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu, eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Ogasuneko Batzordeak 2016ko azaroaren 14an izan zuen bileran “zezenketetara udal baliabideak edota instalazioak” bideratzeari buruzko kontsulta egiteko aurrekontu partidez egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Azaroaren 2an, Gobernu Batzarrak erabaki zuen bi espediente onartzea, zerbitzu hauek kontratatzeko 2016ko aurrekontutik: “ZERBITZUA EMATEA, BOTO ELEKTRONIKOKO PLATAFORMA BATEN BITARTEZ, ZEZENKETETARAKO UDAL

**II.2.3. Moción de control presentada por el Grupo PP sobre partidas presupuestarias destinadas a la celebración de la consulta sobre los “recursos y/o instalaciones municipales para la celebración de corridas de toros”.**

“Doña Miren Albistur Garmendia, portavoz del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Hacienda, celebrada el día 14 de Noviembre de 2016, sobre partidas presupuestarias destinadas a la celebración de la consulta sobre los “recursos y/o instalaciones municipales para la celebración de corridas de toros”.

JUSTIFICACION

La Junta de Gobierno Local del pasado 2 de noviembre acordó la aprobación de dos expedientes para la contratación, “PRESTACIÓN DE SERVICIOS PARA PODER REALIZAR UNA CONSULTA POPULAR A TRAVÉS DE UNA PLATAFORMA DE VOTO

BALIABIDEAK ERABILTZEARI BURUZKO HERRI KONTSULTA EGIN AHAL IZATEKO" eta "DOKUMENTAZIOA INPRIMATZEKO, MANIPULATZEKO ETA POSTAZ IGORTZEKO ZERBITZUA EMATEA, ZEZENKETETARAKO UDAL BALIABIDE PUBLIKOAK ERABILTZEARI BURUZKO HIRITAR KONTSULTA DELA ETA". Ez dakigu, bi kontratu horiez gain, beste zerbitzu batzuk kontratatu beharko diren kontsulta egin ahal izateko

ELECTRÓNICO SOBRE DESTINAR RECURSOS PÚBLICOS MUNICIPALES A CORRIDAS DE TOROS", y otro "PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS DE IMPRESIÓN, MANIPULADO Y ENVÍO POSTAL DE DOCUMENTACIÓN RELACIONADA CON LA CONSULTA CIUDADANA SOBRE DESTINAR RECURSOS PÚBLICOS MUNICIPALES A CORRIDAS DE TOROS", con cargo a partidas del presupuesto 2016. Además de estos dos contratos desconocemos si se van a tener que contratar otros servicios para llevar a cabo la consulta.

Kontsulta egiteko baimena izanez gero, gauza asko hartu eta herritarrei adierazi behar zaizkie (kostua, kontsulta loteslea izango den, informazio bideak eta abar).

En caso de que se autorice la consulta, son muchas las cuestiones que hay que tener en cuenta e informar a la ciudadanía, coste, vinculación de la consulta, canales de información, etc.

Oraingoz, dakiguna da instalazio batzuk prestatu beharko direla —hauteskundeak egitekoan erabiltzen diren 42 tokiak eta Kultur Etxeak, esan zuten—, eta kontsulta egiteko behar diren pertsonak eta baliabide teknikoak eskaini herritarrei. Oraindik ez dakigu, ordea, zer pertsona eta baliabide tekniko izango liratekeen, nahiz eta ordaindu Alkatetzako kabineteak eta Herritar Partaidetzako Departamentuak egingo luketen.

De momento, sabemos que habrá habilitar instalaciones, se habló de los 42 puntos que se utilizan en los procesos electorales, más las Casas de Cultura y poner a disposición de la ciudadanía recursos humanos y recursos técnicos para llevar a cabo la consulta. Éstos últimos sin determinar a día de hoy y que serían sufragados por el gabinete de Alcaldía y por el Departamento de Participación Ciudadana.

Interpelazioa alkateari egin genion guk, hura izan zen-eta kontsultaren aldeko herritarren plataformak aurreneko eskaera egin zuen momentutik bertatik kontsulta egiteko borondatea azaldu eta lege-bide guztiak bilatzen aritu dena. Eta, azkenean, Herri Kontsulten araudia aldatu eta onartu ondoren, herri kontsulta bat egitea etorri da, plataformak planteatu eta 8.000 pertsonak baino gehiagok babestutako galdera nabarmen aldatuta egingo dena.

La interpelación estaba dirigida al Alcalde, que es quien desde la primera solicitud realizada por la plataforma para realizar la consulta ciudadana manifestó la voluntad de realizarla y quien ha buscado todos los cauces legales, que finalmente y con las modificaciones y aprobación de un reglamento de Consultas Populares ha desembocado en una consulta popular que se llevó a aprobación con una variación sustancial de la pregunta planteada por la plataforma y a la que más de 8.000 personas dieron su respaldo.

Beste alderdi inportante bat da, guretzat, herritarrei jakinaraztea zenbateko gehiengoa beharko den kontsulta loteslea izateko, nahiz eta, denok dakigun bezala, kontsulten gaineko araudiak quorum konturik jartzen ez duen.

Horiek horrela direla, hauxe da Talde Popularraren MOZIOA:

AURRENA: Udalbatzak alkateari eskatzen dio denen aurrean esateko zenbateko gehiengoa behar izatea pentsatzen duen hark herri kontsulta hau loteslea izateko.

BIGARRENA: Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio kontsultaren kostu guztiaren xehekapen ahalik eta zehatzena aurkezteko.

Donostian, 2016ko azaroaren 18an

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

Otra cuestión que consideramos relevante es informar a la ciudadanía de a partir de qué quórum la consulta va a ser vinculante, a pesar de que como ya sabemos el reglamento no contempla quorum.

Por todo esto, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

PRIMERO: El Ayuntamiento Pleno insta al Alcalde a que manifieste públicamente qué quorum contempla para que esa consulta popular sea vinculante.

SEGUNDO: El Ayuntamiento Pleno insta al Equipo de Gobierno a que presente un desglose lo más detallado posible del coste total de la misma.

En Donostia / San Sebastián, a 18 de Noviembre de 2016

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Miren Albistur Garmendia andreak, Amaia Martin Garin andreak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak, Alkate-Udalburuak eta Idazkari jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Miren Albistur Garmendia, Dª. Amaia Martín Garín, D. Axier Jaka Goikoetxea, D. Ernesto Gasco Gonzalo, Alcalde-Presidente y Sr. Secretario, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA. / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**3. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 20 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 20 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU.**
**ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**3. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.4. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak egina, bizikletetarako aparkalekuei buruzkoa.**

“Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandro jaunak, Udal Arautegi Organikoaren indarreko 98. artikuluarekin bat etorriz, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, 2016ko azaroaren 14an GUNE PUBLIKOEN BATZORDEA. OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK izeneko batzordean bizikletetarako aparkalekuei buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Bizikleta aparkalekuak gero eta premia handiagoa dira hirian, eta, bertako klimatologia dela eta, gero eta beharrezkoagoak dira bizikletak uzteko aparkaleku estaliak. Bizikleta aparkalekuen kopurua handitzen jarraitu behar da, eta, horregatik, gure taldeak zenbait ekimen izan ditu, bizikleta aparkalekuen

**II.2.4. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre aparcabicis cubiertos.**

“Loïc Alejandro, concejal de Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación sobre sobre aparcabicis cubiertos en la COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS del día 14-11-2016.

JUSTIFICACIÓN

Los aparcabicis son una necesidad cada vez más creciente en la ciudad y, dada la climatología local, son cada vez más necesarios los aparcabicis cubiertos. Es preciso seguir aumentando el número de éstos y es por ello que desde nuestro grupo hemos hecho varias iniciativas para fomentar la

ezarpena, besteak beste estaliena, sustatzeko hiri osoan zehar.

Bizikletaren Behatokiak, bere azken memorian, honako hau azpimarratu zuen: “Aparkalekuak bizikletetarako oinarrizko azpiegituraren funtsezko elementuak dira. Aparkaleku eroso eta seguru bat izatea (bai abiapuntuan bai helmugan), bizikletaren erabilera normalizatua indartzeko ezinbesteko baldintza ez ezik, bizikleta erosteko baldintza ere bada jende askorentzat”.

Era berean, 2008-2024ko Mugikortasun Iraunkorrerako Planak dio behar dela “osatu bizikleta sarea bizikletetarako aparkalekuak jartzearekin, eraikitako ardatzak kontuan hartuta, eta egungo instalazioak zerbitzu-zentroetan, ekipamenduetan eta, oro har, zentro erakargarrietan osatuta.”

**II.2.12. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Babes Ofizialeko Etxebizitza bloke bat edo gazteentzako apartamentuak eraiki eta alokairuan kudeatzeko Añarbeko Urak erakundearen lursaila erosi ez izana dela eta.**

"EH BILDU taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, babes ofizialeko etxebizitza bloke bat edo gazteentzako apartamentuak eraiki eta alokairuan kudeatzeko Añarbeko Urak erakundearen lurzatia erosi ez izana dela eta, Udalbatzan azter dadin. Mozioa Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean, azaroaren 14an, bideratutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

**II.2.12. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU en relación a la no adquisición de una parcela de Aguas del Añarbe para la posterior construcción de un bloque de VPO en alquiler o apartamentos para jóvenes.**

"Ricardo Burutaran Ferré, Concejal del Grupo Municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno, en relación a la no adquisición de una parcela de Aguas del Añarbe para la posterior construcción de un bloque de VPO en alquiler o apartamentos para jóvenes. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 14 de noviembre.

JUSTIFICACIÓN

2015eko irailean, galdera egin genion Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariari, Añarbeko Uren Mankomunitateari babes ofizialeko etxebizitzak edo gazteentzako apartamentuak egiteko egokia zen Matia aldeko edateko uren biltegiaren ondoko lursail baten erosketaz.

Añarbeko Urak erakundeak adierazi zuen bat zetorrela –2015eko ekainaren 1eko aktan jasota dagoen bezala– lursaila banatu eta besterentzearekin, kontuan hartuta, batetik, aurreikusitako esku-hartzeak duen interesa, eta, bestetik, lur hori ez dela beharrezkoa Mankomunitateak eman behar duen zerbitzua emateko.

Geroago, urtarrileko Udalbatzaren osoko bilkuran, EH BILDUk aurkeztutako kontrol mozio hau onartu zen gehiengo zabal batez:

1.- “Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu taldeari aurrera egiteko aurreko legealdian hasitako izapideekin, Matia aldeko Edateko Uraren Biltegiaren ondoko lurzati bat aurten Añarbeko Uren Mankomunitateari erosi, hartan Babes Ofizialeko Etxebizitza bloke bat edo gazteentzako apartamentuak eraiki eta alokairuan kudeatzeko”.

2.- “Halaber, hertsatuki eskatzen diogu Gobernu taldeari gerokoan planeamendu aldaketa bat sustatzeko, babes ofizialeko eragiketa hori gauzatu ahal izateko beharrezkoa baita (babes ofizialeko etxebizitzak edo gazteentzako apartamentuak)”.

Zinegotzi ordezkariari interpelazioa egin genion eta baieztatu zigun udal gobernuaren asmoa zela aurrera egitea aurreko legealdian hasitako izapideekin lurzatia erosteko, eta

En Septiembre del 2015 preguntamos al Concejal Delegado de Urbanismo Sostenible sobre la compra a la Mancomunidad de Aguas del Añarbe de una parcela, apta para la construcción de un bloque de VPO en alquiler o para apartamentos dotacionales para jóvenes, junto al DDAP de Matía.

La Junta de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe manifestó su predisposición favorable a la segregación y enajenación de la misma, como obra en el acta de 1 de junio de 2015, habida cuenta de un lado del interés social de la actuación prevista, y de otro del hecho de que el terreno en cuestión no resulte necesario para la prestación del servicio encomendado a la citada Mancomunidad.

Posteriormente, en el Pleno del mes de enero se aprobó, por una amplia mayoría, la siguiente moción de control presentada por EH BILDU:

1.- “El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno municipal a continuar con las gestiones iniciadas en la legislatura anterior para adquirir, en el presente año, a la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, el terreno colindante con el DDAP de Matía, para la construcción de un bloque de VPO, o de apartamentos para jóvenes, gestionados en régimen de alquiler”.

2.- “Asimismo, se insta al equipo de gobierno a promover posteriormente la modificación de planeamiento necesarias para poder materializar la citada operación de vivienda protegida (VPO o apartamentos para jóvenes)”.

Interpelado al respecto el concejal delegado nos confirmó que era intención del gobierno municipal continuar las gestiones necesarias en la legislatura anterior para adquirir dicha

Añarbeko Uren Mankomunitatearekin zenbait bilera ere egin zituztela. Era berean adierazi zigun beharrezkoa zen planeamendu aldaketa beste aldaketa batzuekin batera egingo zela eta onartu zuen egia dela lurzatia erosita egon zitekeela honezkero.

Horiek guztiak horrela, hau da gure KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Gobernu taldeari, Añarbeko Uren Mankomunitatearekin adostu eta gero, erabaki dezala Matia aldeko Edateko Uren Biltegiko lurzatiaren segregazioa eta, ondoren, eros dezala aipatutako biltegiaren ondokoa, hartan, beharrezko planeamendu aldaketak egin ondoren, babes ofizialeko etxebizitza bloke bat edo gazteentzako apartamentuak eraikitzeko eta alokairuan kudeatzeko.

Donostia, 2016ko azaroaren 18a.

Sinatua: Ricardo Burutarán Ferré,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

parcela; y que incluso habían tenido distintas reuniones con la Mancomunidad de Aguas del Añarbe. También nos manifestó que la modificación de planeamiento necesario, se haría de manera conjunta con otros; admitiendo que es cierto que se podía haber adquirido ya la citada parcela.

En vista de todo ello presentamos la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno municipal a que, previo acuerdo con la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, acuerde la segregación de la parcela del DDAP de Matía, y posteriormente adquiera la colindante al citado DDAP, para la posterior construcción sobre la misma, previa aprobación de la modificación de planeamiento necesaria, de un bloque de VPO o de apartamentos para jóvenes gestionados en régimen de alquiler.

En Donostia a 18 de noviembre de 2016

Sin: Ricardo Burutaran Ferré
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Ricardo Burutaran Ferre jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. Ricardo Burutarán Ferré, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.13. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Ekonomia Sustatzeko Planaren diru laguntzen inguirukoa.**

“Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, ekonomia sustatzeko planaren diru laguntzen MOZIO hau aurkezten du,Osoko bilkuran azter dadin.

Mozio hau Pertsonetako Batzordean 2016ko azaroaren 14ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko agintaldian Udal Gobernuak Ekonomia Sustatzeko Planak abian jarri zituen. Haien aurrekontua beti hazi zen urtez urte: 2012an 4,3M; 2013an, 6,9M; 2014an, 7,3M eta 2015ean 8,3M. Argi dagoenez, hura Udal Gobernuaren lehentasunetako bat zen. Donostiako Sustapenak, alde batetik, hiriaren ezagutza ekonomikoa hobetu du eta, bestetik, izugarrizko sare bat lantzeko aukera izan du: instituzioak, unibertsitateak, zentro-teknologikoak, auzo elkarteak, ostalaritza, enpresak, merkataritza eta abar. Guztira 80 eragile baino gehiagok parte hartu dute.

Erabilitako leloek helburuak nabarmentzen zituzten: ”Gehien behar duenarentzat. Gehien behar den lekuan”-”Ekonomia Sustatzeko 2015eko Plana, Kalitatearen eta Berrikuntzaren alde apustu eginez. Enpleguan ere, Kalitateko Donostia baten alde”.

2016ko plana onartu zenean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntza, aurrekontuan

**II.2.13. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre las ayudas del Plan de Estímulo Económico.**

“Josu Mirena Ruiz Martin, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN relativa a las subvenciones al Plan de Estímulo Económico, para que sea analizada en el Pleno.

Esta moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas el 14 de noviembre de 2016.

JUSTIFICACIÓN

En el anterior mandato, el Gobierno municipal puso en marcha varios planes de estímulo económico. El presupuesto aumentaba de año en año: en 2012, 4,3M; en 2013, 6,9M; en 2014, 7,3M y en 2015, 8,3M, lo que demuestra que el estímulo de la economía era una de las prioridades del Gobierno municipal. Por otro lado, Fomento de San Sebastián ha contribuido a profundizar en el conocimiento de la economía de la ciudad, a la vez que ha desarrollado una gran red, formada por instituciones, universidades, centros tecnológicos, asociaciones vecinales, empresas de hostelería y de otro tipo, comercios etc., en la que han participado más de 80 agentes en total.

Los lemas utilizados destacaban los objetivos que se pretendía alcanzar:“Para quien más lo necesita. Donde más se necesita” - “Plan de Estímulo Económico 2015, Apostando por la Calidad y la Innovación. A favor de una San Sebastián de Calidad, también en el Empleo.”

Cuando se aprobó el Plan de 2016, la subvención que la Diputación Foral de

125.000 eurokoa zen eta urtean zehar handituko zela esan zigun Udal Gobernuak. Gogorarazi behar da 2015ean, Bildu Foru Aldundian zegoela, ekonomia sustatzeko planaren diru-laguntza zela-eta, 589.716 euro jaso zituela Donostiako Udalak. Aurten Foru Aldundia kopuru horretara ez da iritsiko, baina datorren urteko aurrekontuan, diru laguntza 80.000 eurora jaitsi du. Sinestezina iruditzen zaigu.

Gipuzkoa concedió al Ayuntamiento de San Sebastián era de 125.000 euros, pero el Gobierno municipal nos dijo que aumentaría a lo largo del año. Debemos recordar que en el año 2015, estando Bildu en la Diputación, el Ayuntamiento de San Sebastián recibió una subvención de 589.716 euros. Este año, la subvención de la Diputación Foral no va a alcanzar esa cifra y, además, en el presupuesto para el próximo año, se ha visto reducida a 80.000 euros. Algo, a nuestro entender, increíble.

Delegatuak batzordean esan zuenez Aldundiko diru laguntza Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa departamentutik dator, 2016an eta 2017an Smart kale bat Altzan gauza dadin. Bestalde, Ekonomia Sustatzeko departamenduak momentuz diru laguntzak emateko konpromisorik ez du hartu. Gascok eskaera luzatu duela argitu zuen baina oraingoz ez dago erantzunik.

Según manifestó el delegado en la Comisión, la subvención que concede la Diputación procede del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio y tiene como objetivo la creación de una calle Smart en Alza, en 2016-2017. Por otro lado, el Departamento de Promoción Económica no se ha comprometido a conceder subvenciones, al menos por el momento. El Sr. Gasco nos comunicó que ha presentado la solicitud correspondiente, pero que, de momento, no ha obtenido respuesta.

MOZIOA

1- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiarekin negozia dezala Ekonomia Sustapeneko departamenduak ekarpen ekonomiko garrantzitsuagoa egitea, gutxienez, 2015eko diru-laguntza kopurura iritsi dadin; Udal Sustapen plana eraginkorragoa izateko helburuarekin.

Donostia, 2016ko azaroak 18

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

MOCIÓN

1- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno municipal que negocie con la Diputación Foral de Gipuzkoa para que el Departamento de Promoción Económica haga una aportación más importante, que alcance, al menos, el importe de la subvención concedida en 2015, con el objetivo de que el Plan de Estímulo municipal sea más eficaz.

San Sebastián, 18 de noviembre de 2016

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Josu Ruiz Martín, D. Ernesto Gasco Gonzalo y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 2 – PP.**

---------------

**II.2.14. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Udal Gobernuak euskararen erabilera sustatzeko konpromisoa dela eta.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko uztailaren 11n Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako euskararen erabilera sustatzeko konpromisoari dagokion interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Euskararen normalizazioari begira ugari dira hirian ditugun araudi, plangintza eta egitasmoak. Horiek guztiak ez dira ezer izango, eta paper hutsean geratuko dira, beraien betekizunarekiko konpromiso irmorik gabe egon ezean. Betekizun konpromiso hori,

**II.2.14. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre el compromiso del Gobierno Municipal para impulsar el uso del euskera.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación efectuada en la Comisión de Servicios a las Personas del 11 de julio de 2016.

JUSTIFICACIÓN

Son muchos los reglamentos, planes y proyectos que tenemos en la ciudad para avanzar hacia la normalización del euskera. Sin embargo, todas estas iniciativas quedarán en papel mojado, si no existe un compromiso firme para velar por su cumplimiento. Es por ello por

beraz, denoi dagokigu herritar zein agintari. Azken honi dagokionez, argia da Udal-gobernuaren jarrera eta jokaera eredua, determinantea dela. Udal Gobernuak ere iritzi hau guztiz konpartitzen du eta horren lekuko da Alkateak berak aurten langile guztiei luzatutako barne mezu baten bidez onartutako irizpideak jarraitu beharra gogoratzen zuela. Hitzez hitz honela zioen mezu baten bidez: “Euskararen normalizazioan administrazioak eredugarri ez ezik eragile ere izan behar du eta langintza horretan ezinbestekoa da arduradun politiko, zuzendari eta langile guztien inplikazioa. Eredutzat hartu behar gaituzte herritarrek”.

lo que este compromiso debe ser asumido por todas las partes, tanto por la ciudadanía como por las autoridades competentes. A este respecto, es evidente que la actitud y el comportamiento del gobierno municipal es determinante. El Gobierno municipal comparte totalmente esta opinión, y prueba de ello es el correo interno que el mismo alcalde ha enviado este año a toda la plantilla con el objeto de recordarles la obligatoriedad de cumplir con los criterios aprobados. El tenor literal de dicha comunicación es el siguiente: “Consideramos que la administración debe ser no sólo ejemplo sino también agente en la normalización del euskera. En esa tarea resulta imprescindible la implicación de todas y todos los que conformamos la administración municipal. La ciudadanía debe tomarnos como ejemplo”.

Uztaileko Batzordeetan alkateari berari zuzendu genion interpelazioa, Udalaren ardurapean eginiko interbentzio garrantzitsu batean izandako urraketak zirela-eta. Zehazkiago, Blas de Otero plazan jarri ziren kirol lasaia egiteko tramankulu berrietako kartelak elebakarrak zirela jakin genuen irekiera egiterakoan. Kontuan izanda mota horretako kartelen helburua eta Egia auzoak aurten egin duen euskararen erabilera sustatzeko ahalegin itzela, okerra konpontzea ezinbestekoa zen. Horixe gure interpelazioaren helburua eta emaitza.

En la comisión de julio presentamos una interpelación al alcalde en relación con las vulneraciones que se produjeron en una importante intervención de responsabilidad municipal. Y es que tuvimos conocimiento de que, el día de la apertura de los nuevos aparatos deportivos de la plaza Blas de Otero, los carteles estaban exclusivamente en castellano. Teniendo en cuenta el objetivo de este tipo de carteles así como el inmenso esfuerzo que realiza el barrio de Egia para fomentar el uso del euskera, era necesario subsanar esta deficiencia. Este fue el objetivo y el resultado de nuestra interpelación.

Alkatearen partez Hirigintzaren ordezkariak erantzun zuen, akatsak berehala zuzenduko zirela esanez. Ez ziren bakarrak, Blas de Otero plazakoak, Egian bezala, Harrobitxulo parkean ere hala gertatu zelako. Ondorioz, Alkateari berari eginiko interpelazioari jarraikiz, hala nola, donostiarrek beraiek eginiko kexuei erantzunez, irailerako, aipatutako kartel elebakarrak aldatuak zeuden.

Quien contestó a la misma no fue el alcalde, sino el representante de Urbanismo, señalando que procederían a su inmediata subsanación. Sin embargo, los errores de la plaza Blas de Otero no fueron los únicos, ya que en el parque de Harrobitxulo sucedió lo mismo que en Egia. Atendiendo a la interpelación presentada al alcalde así como a las quejas formuladas por la propia ciudadanía donostiarra, estos carteles monolingües fueron sustituidos para

septiembre.

Udal Gobernua kexu izan da gai honi gehiegizko garrantzia ematen zaiolakoan. Alabaina, urriaren 15ean jakin genuen beste auzo batean eta beste parke batean, berriz arazo bera gertatu zela. Zehazki Amarako "Donostiar Kofradien Plaza"n. Antzeko kirol-gailuez plaza hornitu eta berriz ere kartel elebakarrak jarri ditu Udal-gobernuak.

El Gobierno municipal se ha quejado en más de una ocasión, considerando excesiva la importancia que se le presta a esta cuestión. Sin embargo, el 15 de octubre tuvimos conocimiento de que, una vez más, se producía el mismo problema en un parque situado en otro barrio de la ciudad; concretamente, en la plaza de las Cofradías Donostiarras. El Gobierno municipal ha dotado a la plaza de aparatos deportivos similares a los instalados en Egia y, una vez más, los carteles de este equipamiento están exclusivamente en castellano.

Orain dela aste gutxi batzuk, urriaren 13an, Euskara Zerbitzuak gogoratu zuen moduan, mezu orokor baten bidez, 5. Euskara Planaren arabera..."Kontratatutako enpresek Udalaren hizkuntza baldintza berberak bete behar dituzte" eta mezuan bertan laburtzen zuen honek esan nahi duena, alegia: "Herritarrei nahiz udal langileei zuzendutako ahozko nahiz idatzizko osagai guztiak bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira, euskarari lehentasuna emanez." Halaber Euskara zerbitzuak bete beharrekoak gogoratzearekin batera, Hizkuntza baldintzak zehazten diren plegu ereduak daudela ohartzen zuen, eta Kontratazio Bulegoan eskura daitezkeela. Kasu honetan hornidura kontratua denez, hornitzaileari arestian jasotakoa betetzeko beste lanik ez dago, kosteak ere merketuko bailirateke. Eta, noski, hornitzaileak hala ez badakar, kalean eta herritarren eskura jarri aurretik, Udal-gobernuak neurri zuzentzaileak hartu beharko ditu.

Hace algunas semanas, el 13 de octubre, el Servicio de Euskera recordó, a través de un correo general, que según el 5º Plan de Euskera, "las empresas contratadas deben cumplir los mismos requisitos lingüísticos que se le exigen al Ayuntamiento". En la misma comunicación se resumía lo que significa este extremo: "Todos los elementos orales o escritos dirigidos tanto a la ciudadanía como al personal municipal estarán en las dos lenguas oficiales, dando prioridad al euskera". Además de recordar las obligaciones del Servicio de Euskera, advertía que existen modelos de pliegos que definen los requisitos lingüísticos y que éstos están disponibles en el Negociado de Contratación. Teniendo en cuenta que se trata de un contrato de suministro, no hay más que pedir al proveedor que cumpla con lo señalado anteriormente, dado que de esta manera se abaratarán los costes. Sin duda, si el proveedor no suministra su producto de esta forma, antes de colocarlo en la vía pública y de ponerlo a disposición de la ciudadanía, el Gobierno municipal deberá adoptar las medidas correctoras que resulten oportunas.

Oraindik indarrean dagoen "Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Erabilera

Es preciso recordar que el Plan de Normalización del Uso del Euskera del

Normalizatzeko 5. Plangintzaldia (2013-2017)" delakoak hiru helburu nagusi dituela gogoratu beharra dago. Normalizazioaren ikuspuntutik bultzatu nahi den erabilerari begira, horien artean garrantzitsuena, herritarrari euskararen erabilera bermatu behar zaiola, gaztelera bermatzen zaion neurrian.

Beraz, ez da ezagutza falta, ez da baliabide falta. Zer da orduan? Zergatik Udal Gobernuak ez ditu hartzen neurriak, hitzez esaten dituen konpromisoak betetze aldera? Behin eta berriro honi buruz interpelatu ondoren, eta jarraian behin eta berriro akats berbera egiten ari dela ikusita, gaia Udalbatzan lantzea ezinbestekoa jotzea besterik ez dago.

Euskararekiko konpromisoa irmoa izateaz gain, bere normalizaziorako araudien betekizun zorrotzaren alde lan egiteko konpromisoa beharrezkoa da baina, egitekoei erreparatuz gero, Udal Gobernuak konpromiso orokorra izan beharrean bakarrik interpelatu egiten zaionean betetzeko prestutasuna duela erakutsi du orain arte. Bere buruari "Euskararen hiria" titulua eman dion hiriko gobernuaren eginbidea ezin da hori izan, eta banan banako egoerei erantzun ordez konpromisoa orokortasunean agertzeko beharra dago. Uztailean ez bezala, Udal Gobernuak horri bide emango diolakoan gaude.

Horiek horrela, hauxe da gure MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari:

1.1.- Donostiako herritarrei euskararen

Ayuntamiento de San Sebastián, 5º Periodo de Planificación (2013-2017) tiene tres objetivos principales. Entre ellos, el más importante desde el punto de vista de la normalización es garantizar a la ciudadanía el uso del euskera, en la misma medida en que se garantiza el uso del castellano.

Por tanto, no se trata de falta de conocimiento, ni tampoco de falta de recursos.¿Qué es entonces?¿Por qué el Gobierno municipal no adopta las medidas necesarias para cumplir los compromisos que verbalmente asume? Tras presentar reiteradamente interpelaciones sobre esta cuestión, y viendo que, aun así, se comete una y otra vez el mismo error, consideramos que es imprescindible tratar este asunto en el Pleno.

Además de adoptar un compromiso firme a favor del euskera, es necesario asumir también el compromiso de trabajar por el estricto cumplimiento de los reglamentos que regulan su normalización. Sin embargo, atendiendo a los hechos, en vez de constituir un compromiso general, el Gobierno municipal sólo ha mostrado su disposición de cumplir estos reglamentos cuando se le interpela. Este no puede ser el procedimiento del gobierno de una ciudad que se ha atribuido a sí misma el título de "Ciudad del euskera". Consideramos que, en lugar de responder a situaciones individuales, es necesario mostrar un compromiso general. Esperamos que el Gobierno municipal, al contrario de lo que hizo en julio, actúe, en adelante, de este modo.

Por lo expuesto, presentamos la siguiente MOCIÓN:

1.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que:

1.1.- Garantice a la ciudadanía donostiarra el

erabilera bermatuko diela, gaztelerazkoa bermatzen dien neurri berean.

1.2.- Arreta berezia jartzeko euskaraz bizitzea posiblea dela erakusten duten ekimenetan, eta horretarako Udal Gobernuak behar diren neurri eta baliabideak jarriko dituela.

1.3.- Euskararen erabilera normalizatzeko bidean aurrera-urratsak emango dituela, indarrean dagoen "Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 5. Plangintzaldiaren (2013-2017)" arau eta jarraibideen norabidea kontuan hartuz.

Donostian, 2016ko azaroaren 18an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

uso del euskera, en la misma medida en que garantiza el del castellano.

1.2.- Preste especial atención a aquellas iniciativas que demuestran que es posible vivir en euskera y que establezca las medidas y los recursos necesarios para ello.

1.3.- Garantice que seguirá avanzando en la normalización del uso del euskera, teniendo en consideración el sentido de las normas y directrices recogidas en el Plan de Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de San Sebastián, 5º Periodo de Planificación (2013-2017).

San Sebastián, 18 de noviembre de 2016

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.15. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Garberaren zabalkundearen alde egindako merkataritza txostena dela-eta.**

"Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi

**II.2.15. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre el informe de comercio realizado a favor de la ampliación de Garbera.**

"Josu Mirena Ruiz Martin, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98

Organikoaren 98. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, Garberaren zabalkundearen alde egindako merkataritza txostena dela-eta, MOZIO hau aurkezten du, Pertsonen Batzordean 2016ko azaroaren 14ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio dena.

del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN en relación con el informe sobre el comercio favorable a la ampliación de Garbera al señor Ernesto Gasco, para que dé las explicaciones pertinentes en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorraren aldaketa dela-eta, asteazkenean, azaroak 2, Udal Gobernuak Garberaren zabalkunde proiektua aurkezteko bilera deialdia egin zuen Udalbatzar aretoan, arauak horrela derrigortzen baitu.

Debido al cambio producido en el Plan General de Ordenación Urbana, el miércoles 2 de noviembre el Gobierno municipal convocó una reunión en el Salón de Plenos para presentar el proyecto de ampliación de Garbera, de acuerdo con lo establecido por la normativa en vigor.

Bilera horretan merkataritza txosten bat aurkeztu zuen Udal Gobernuak, eta gure harridurarako, txostenak ez zion gaiari heltzen. Bizkaian, Baionan, Iruñean eta Gasteizen dauden merkataritza guneak zerrendatzen zituen, zabalkundeak turismoarentzat onurak ekarriko zituela gaineratzen zuen eta, zenbaki potolo batzuk eginda, lana amaitzen zen.

En esta reunión el Gobierno municipal presentó un informe sobre el comercio en el que, para nuestra sorpresa, no se trataba este asunto. El informe ofrecía una relación de los centros comerciales de Vizcaya, Bayona, Pamplona y Vitoria-Gasteiz, añadía que la ampliación sería beneficiosa para el turismo y concluía presagiando unas grandes cifras.

Baina Garberaren zabalkundeak hirian eta auzoetan eduki dezakeen eraginaz txintik ere ez zioen txostenak. Gainera, Ilunberen irekiera eta eragina ez du kontuan hartzen. Udalaren eta hiriaren interesak ez dira inon agertzen; dirudienez Garberarenak bai, hark ordaindu baitu, finean, txostena.

El informe no decía absolutamente nada sobre las consecuencias que puede tener la ampliación de Garbera en los diferentes barrios de la ciudad. Además, tampoco se consideraban las consecuencias de la apertura de Illunbe. Los intereses del Ayuntamiento y de la ciudad no aparecen por ningún lado, aunque parece que sí los de Garbera, que en definitiva es quien ha pagado el informe.

Batzordean Gasco jaunak Iruñea,Baiona,Oiartzun eta Usurbil besteak beste aipatu zituen,baina Garberaren zabalkundeak Donostiako merkataritzan izan dezaken ondorioei buruz ez zuen ezer esan. Eta azken hau oso kezkagarria da. Hori dela eta, hauxe da EHBildu taldeak aurkezten duen:

En la comisión, el señor Gasco hizo mención a ciudades como Pamplona, Bayona, Oiartzun y Usurbil, pero no dijo absolutamente nada sobre las afecciones que puede tener la ampliación de Garbera en el comercio de San Sebastián. Y esto último es muy preocupante. Es por ello por lo que el grupo EH Bildu presenta la siguiente

MOZIOA

1-Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio merkataritza txostena egin dezala Garberaren zabalkundeak auzoetako merkataritzan izango luken eragina aztertuz, eta kontutan hartuz ere Ilunberen irekiera.

Donostia, 2016ko azaroak 18

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

MOCIÓN

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno municipal que elabore un informe sobre el comercio en el que se analicen las consecuencias que tendrá la ampliación de Garbera en el comercio de los diferentes barrios de la ciudad, teniendo en cuenta que también tendrá lugar la apertura de Illunbe.

San Sebastián, 18 de noviembre de 2016

Josu Mirena Ruiz Martin
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Josu Ruiz Martín, D. Loïc Alejandro, D. José Luis Arrúe Pintó y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.16. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, CE.05 San Bartolome eremuko lanak direla eta.**

"EH BILDU taldeko zinegotzi Ricardo

**II.2.16. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre las obras del Área CE.05 San Bartolomé.**

"Ricardo Burutaran Ferré, Concejal del Grupo

Burutaran Ferrék, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, CE.05 San Bartolome eremuko lanak direla eta, Udalbatzan azter dadin. Mozioa Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean, azaroaren 14an, bideratutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Azaroaren 8an ustekabean harrapatu gintuen Arroka plazaren alboetako batean altuera handiko horma bat eraiki zutela jakiteak, aurrena, eta zati bat behera bota zutela jakiteak, geroago, egun indarrean den urbanizazio planean ez baitago horma hori eraikitzeko aurreikuspenik. Beste era batera esanda, horma eraiki zuten, hori egiteko gaitzen duen titulurik gabe eta inongo baimenik gabe; hirigintzako arau-hauste bat, alegia.

Alde horretatik, gogoratu behar da Udalak berak bi ordezkari dituela San Bartolome Muinoa sozietatearen administrazio kontseiluan.

Beste alde batetik, udal gobernuko kide batzuek Arroka kaleko frontoia behera botatzeko asmoa adierazi dute jendaurrean.

Zinegotzi ordezkariari horri buruzko interpelazioa egin eta baieztatu zigun horma eraikitzeko aurreikuspenik ez dagoela egungo urbanizazio proiektuan.

Frontoia behera botatzeko bere proposamena ere baieztatu zigun, aurreikusita ez badago ere ez Plan Orokorraren Aldaketa onartu berrian, ez Urbanizatzeko Jarduketa Programan.

Municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno sobre las obras del Área CE.05 San Bartolomé. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 14 de noviembre.

JUSTIFICACIÓN

El pasado 8 de noviembre nos vimos sorprendidos por dos noticias, de un lado por la inicial construcción de un muro de gran altura en uno de los lados de la Plaza de Arroka, para posteriormente pasar a derribar parcialmente el mismo, sin que la construcción del citado muro estuviese prevista en el Proyecto de Urbanización actualmente vigente. Es decir, se construyó el citado muro, sin título habilitante, ni licencia alguna, lo que supone la comisión de una infracción urbanística.

En este sentido, es preciso recordar, que el propio Ayuntamiento, forma parte del Consejo de Administración de San Bartolome Muinoa con dos representantes.

Por otra parte, miembros del gobierno municipal han manifestado públicamente su intención de derribar el frontón de la calle Arroka.

Interpelado al respecto el concejal delegado nos confirmó que la construcción del muro no está contemplada en el Proyecto de Urbanización actualmente vigente.

Asimismo nos confirmó su propuesta de derribar el actual frontón, a pesar de no estar previsto en la Modificación del Plan General recientemente aprobada, ni en el Programa de Actuación Urbanizadora (PAU).

Amara Bai Auzo Elkartekoek baieztatu digute udal gobernuaren ordezkari bakar batek ere ez diela aurrez ezer kontsultatu edo frontoia botatzeko asmoen berririk eman. Kirol instalazio hori, bestalde, bertako bizilagun askok erabiltzen dute.

Horiek guztiak horrela, hau da gure KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio ez dezala har Arroka plazako frontoia botatzeko erabakia eta, sortu den egonezina aintzat hartuta, abiaraz dezala auzoan informazio eta kontsulta prozesu bat auzotarrekin eta hango merkatariekin eztabaidatzeko eta adosteko eremu horren behin betiko diseinua eta urbanizatzeko proiektu proposamena.

2.- Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio ezen, frontoia ez botatzea erabakitzen bada, behar bezala hornitu dezala kirol jardueretarako eta aisiarako eremu hori eta hobetu ditzala haren itxura eta egoera.

Donostia, 2016ko azaroaren 19a.

Izpta.: Ricardo Burutaran Ferré,
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

Desde la Asociación de Vecinos de Amara (Amara Bai) nos confirman que ningún representante del gobierno municipal les había consultado, ni informado de forma previa de las intenciones con respecto al derribo del citado frontón. Instalación deportiva, que por otra parte, es utilizada por numerosos vecinos y vecinas de la zona.

A la vista de todo ello, presentamos la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno municipal a no acordar el derribo del frontón de Arroka en Amara, y a que en atención al malestar creado, inicie un proceso de información y consulta en el barrio, debatiendo y acordando con el vecindario y comercio del barrio el diseño definitivo de este espacio y la propuesta del Proyecto de Urbanización.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno municipal a que, si se decide conservar el frontón, equipe adecuadamente este espacio deportivo y de esparcimiento, mejorando su aspecto y las condiciones del mismo.

En Donostia a 19 de Noviembre de 2016.

Fdo.: Ricardo Burutaran Ferré
Concejal del Grupo Municipal de EH BILDU".

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Loïc Alejandro jaunak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak, Enrique Ramos Vispo jaunak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ricardo Burutarán Ferré, D. Loïc Alejandro, D. Ernesto Gasco Gonzalo, D. Enrique Ramos Vispo y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.17. Kontrol mozioa, PP Taldeak aurkeztua, Altzako kiroldegiaren ingurukoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu, eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordeak Altzako kiroldegiaren inguruan egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Aspaldi ez duela, jakin dugu Donostiako alkateak gutun bat –urriaren 17an sinatua– igorri diela Altza eta Herrerako auzotarrei, Altzako kiroldegiko lursailen azpian, eta bai ondoko lursailen azpian ere, amiantoa dagoela egiaztatu eta gero. Hori dela-eta, kirol instalazioak aste batzuetan itxita egon beharko du.

Antza denez, gutunean jasotakoaren arabera, gerora sortutako arazo bat izan da, ustekabekoa, eta jatorria du garai bateko Fibrocementos Vascos SAk joan den mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetan egindako lana. Izan ere, lantegi hori orain kiroldegiak okupatzen duen orubean zegoen, eta material kutsatuak utzi zituen inguruko lursailetan.

**II.2.17. Moción de control que presenta el Grupo PP sobre el Polideportivo de Altza.**

“Doña Miren Albistur Garmendia, portavoz del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas sobre el polideportivo de Altza.

JUSTIFICACION

Recientemente hemos sabido que el Alcalde de San Sebastián ha enviado una carta a los vecinos de Altza y Herrera, firmada el 17 de octubre, tras confirmarse la existencia de amianto bajo las parcelas del Polideportivo de Altza y colindantes, lo que obligará a cerrar la instalación deportiva varias semanas.

Al parecer, según indica la misiva, se trata de un “problema sobrevenido de manera imprevista” que procede de la actividad de la antigua fábrica Fibrocementos Vascos S.A. durante los años 60 y 70 del siglo pasado, que se levantaba en el solar que ahora ocupa el polideportivo y que depositó los materiales contaminados en las parcelas situadas a su

alrededor.

Hala eta guztiz ere, alkatea baikor agertu da eta kiroldegiaren proiektua aurrera doala dio, ezbehar honek atzeratuko badu ere obrak hasteko momentua.

Pese a ello, confía el Alcalde en su misiva que el proyecto de polideportivo continúa adelante, “aunque este contratiempo supondrá un retraso en el arranque de las obras”.

Albisteak ez ditu ustekabean harrapatu Altzako auzotarrak, diotenez, auzoko guztiek bai baitzekiten amiantoa zegoela. Kexu agertu dira, haien esanetan, Donostiako Udalak oso ondo zekielako, hasiera-hasieratik, amiantoa zegoela han, eta ez dute ulertzen zergatik Udalak hainbeste denbora pasatzen utzi duen esku hartu baino lehen. Eskatzen dute, gainera, berehala emateko informazio osatua gaiari buruz.

A los vecinos del barrio de Altza no les ha cogido por sorpresa esta noticia, pues aseguran que la existencia del amianto era una cuestión conocida por todos en el barrio. Critican que el Ayuntamiento de San Sebastián conocía perfectamente, desde un inicio, la existencia de amianto en ese lugar y no entienden por qué el Ayuntamiento ha tardado tanto tiempo en tomar cartas en el asunto. Exigen, además, información urgente y completa sobre el asunto.

Kiroldegia 1987an eraiki zen, garai bateko uralita lantegiak okupatzen zituen lurren gainean. Handik hurbil, Oleta eskola dago. Auzoak duen kirol instalazio bakar hau handitzeko proiektuaren arabera, aire zabaleko igerileku bat egin behar da, hasiera batean behintzat. Horrek hartuko lituzkeen lurrak ere kutsatuta daude, antza denez, aurtengo uztailean udal zerbitzuek egindako laginketetatik ondorioztatu bezala.

El polideportivo se edificó en 1987 sobre el terreno de la antigua fábrica de uralita y en las proximidades se encuentra la Escuela de Oleta. El proyecto de ampliación de la única instalación deportiva del barrio comprende, inicialmente, la existencia de una piscina al aire libre en los terrenos que, presumiblemente, están, también, contaminados, como dictaminaron las catas realizadas por los servicios municipales en julio de este año.

Batzordean, Hirigintzako zinegotzi ordezkariak batez ere kontu teknikoei buruz jardun zuen, eta oraingo gobernu taldeak, bai eta aurrekoak ere, berariaz aitortu zuten ez dagoela koordinaziorik gai honetan. Gainera, berretsi zuten 2016ko urtarrilaz geroztik dutela horren berri.

Escuchadas las respuestas facilitadas en Comisión por el Delegado de Urbanismo que se extendió en cuestiones fundamentalmente técnicas, y tras el reconocimiento expreso tanto del Equipo de Gobierno actual como del anterior, relativo a la descoordinación existente en este asunto, confirmando su conocimiento desde enero de 2.016.

Hori dela eta, Talde Popularrak honako MOZIO hau aurkezten du:

Es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

LEHENENGOA: Udalbatzak gaitzetsi egiten dio gobernu taldeari herritarren osasunari

PRIMERO: El Ayuntamiento Pleno reprueba al Equipo de Gobierno por la reconocida

zuzenean eragiten dion kontu honetan aitortutako deskoordinazioa, bai eta alkateak 9.000 bizilaguni bidalitako idazki desegokia ere, arazoa ustekabean gertatutako ezbehartzat jotzen baitu.

descoordinación en este asunto que afecta directamente a la salud de los ciudadanos, y por el poco acertado el escrito enviado por el Alcalde a 9.000 vecinos definiendo este problema como un contratiempo sobrevenido de manera imprevista.

BIGARRENA: Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari, gai sentikor honetan gardentasun osoz jokatzeko, har ditzala hartu beharreko neurriak herritarrei eta udal taldeei informazio guztia emateko.

SEGUNDO: El Ayuntamiento Pleno insta al Equipo de Gobierno a que en aras a la total transparencia en un asunto tan sensible, extreme las medidas para que la información a la ciudadanía y a los Grupos Municipales sea plena.

Donostia, 2016ko azaroaren 23a

En Donostia / San Sebastián, a 23 de Noviembre de 2016

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Miren Albistur Garmendia andreak, Loïc Alejandro jaunak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Miren Albistur Garmendia, D. Loïc Alejandro, Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D. Ernesto Gasco Gonzalo y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA. / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**17. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 17:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 22 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 22 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU.**

ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.

ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.

**17. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 17:**

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

---------------

ETA BESTELAKO AZTERGAIRIK EZ DENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO ARRATSALDEKO ORDU BIAK BOST GUTXIAGOTAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:

Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS TRECE HORAS Y CINCUENTA Y CINCO MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:

LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:

IDAZKARIA: / EL SECRETARIO: